

GIZA ESKUBIDE, BERDINTASUN ETA JUSTIZIA BATZORDEA
COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS, IGUALDAD Y JUSTICIAEUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

12\11\02\01\00100 espediente zk.

N.º expediente: 12\11\02\01\00100

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak, 2021eko martxoaren 3an egindako bileran, 16/2021 Legez besteko Proposamena onetsi du, herri indigenen errealitateari eta haien eskubideen egoerari buruz, honako testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak onesten du:

1. Euskal erakundeei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eskatzea sustatu dezatela, beren atribuzioen neurrian, ahal duten guztietan eta diplomaziaren jardunbide egokiaren esparruan, beren homologo latinoamerikarrekiko elkarrizketa, xede izango baitu beti inplikazio eta konpromiso handiagoa lortzea herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboekin, baita beraien bizitza duina zaintzarekin eta babestarekin ere.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzea lehenetsun horrek berak bideratu behar duela, ahal den neurrian, haien presentzia aktibo, propositibo eta eragingarria NBE edo EB bezalako instantzia eta organismo multilateraletan, lankidetzak partekatu eta indartu daitezkeen, bai osasun-mailakoak berak bai garapen jasagarriaren gainerako dimentsioetan. Herri indigenen ikuspegiak, beharrak eta interesak 2030 Agendaren krisi-osteko susperraldian eta bizkortzean txertatzeak nazioarteko ekintza berri horren helburu nagusietako bat izan behar du.

La Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Justicia, en la sesión celebrada el día 3 de marzo de 2021, ha aprobado la Proposición no de Ley 16/2021, relativa a la realidad de los pueblos indígenas y la situación de sus derechos, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco aprueba:

1. Instar a las instituciones vascas y, especialmente, al Gobierno Vasco a que promuevan, en la medida de sus atribuciones, siempre que les sea posible y en el marco del buen hacer de la diplomacia, un diálogo con sus homólogos latinoamericanos, orientado siempre a conseguir una mayor implicación y compromiso con los derechos humanos individuales y colectivos, así como con la atención y protección de la vida digna de los pueblos indígenas.
2. Instar al Gobierno Vasco a que esta misma prioridad tiene que orientar, en la medida de lo posible, su presencia activa, propositiva e influyente en instancias y organismos multilaterales como la ONU o la UE, de forma que se compartan y fortalezcan acciones de cooperación, tanto las propiamente sanitarias como en el resto de dimensiones del desarrollo sostenible. La incorporación de las visiones, necesidades e intereses de los pueblos indígenas en la fase post-crisis de relanzamiento y aceleración de la Agenda 2030 debe ser uno de los objetivos principales de esta renovada acción internacional.
3. Declarar que la participación directa de los





3. Adieraztea ezen erabakiak hartzean herri indigenek eta haien ordezkari-antolakundeek, arreta berezia jarri emakume indigenengan, zuzenean parte hartzea dela erarik onena haien eskubideen egiazko errespetua bermatzeko. Nola diplomaziaren eremu zabalean hala lankidetzaren eremu espezifikoan, herri eta antolakunde indigenak lehen-mailako solaskidetzat hartu behar dira abiaburuko diagnostikoa finkatzean eta adostutako abordatze-alternatibak zehaztu eta gauzatzeko garaian.
 4. Adieraztea herri indigenek kalteberatasun bereziko baldintzetan aurre egin behar diotela COVID-19ak eragindako larrialdiari, kontuan hartu eta erantzun beharreko baldintzetan, alegia. Garrantzizkoa da baliabideak, bitartekoak eta tresnak mobilizatzea zentzu horretan eta berriazko neurriak hartzea berezko dituzten ikuspegi bereziak txertatzen direla bermatzeko, giza eskubideen nazioarteko zenbait tresnak ezartzen duten bezala. Pandemiaren kontrako ahalegin kolektiboak eraginkortasuna galduko du eskubideen ikuspegiak eta genero-perspektiba txertatzen ez baditu, berorien bidez aurkitzen baitituzte herriek eskubideen subjektu gisa aitortuak izateko eta hala jardun ahal izateko beharrezko elementuak.
 5. Adieraztea ezen, epe ertain eta luzera, euskal lankidetzak baduela erronka bati aurre egin beharra, hau da, aldaketa sakon bat kudeatu bere esparru legislatibo, politiko eta instituzionalean. Herri indigena gisa garapenerako eta nortasunerako duten eskubidea –haien bizi-planetan gauzatu ohi dena– baliarazten laguntzeak aldaketa horren lehenetsunaren parte izan behar du eta pisu gehiago hartu behar du etorkizuneko lankidetzajarraibide berrietan, plan zuzentzaileetan eta euskal lankidetzak izan ditzakeen bestelako tresnetan, haien markatuko baitute agenda hurrengo aldian, bai eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) balizko erreforman bertan ere. Hori guztia GGKE-en bidezko lankidetzaleroetan –ondo diseinatuta eta tresna egokiz eta behar beste baliabidez hornituta– gauzatu egin beharko litzateke, ahalbidetze aldera antolakunde indigenek berek lidergoa izatea beren eskubideak gauzatzeko (lurralderako eta beren natura- eta kultura-ondasunen kontserbaziorako eskubidea, elikadura-subiranotasunerako edo beren informazio eta
- pueblos indígenas y sus organizaciones representativas, con especial atención a las mujeres indígenas, en la toma de decisiones es la mejor forma de garantizar el respeto efectivo de sus derechos. Tanto en el ámbito político diplomático más amplio como en el específico de la cooperación, los pueblos y organizaciones indígenas han de ser considerados interlocutores de primer nivel a la hora de establecer el diagnóstico de partida y la definición y puesta en práctica de las alternativas de abordaje consensuadas.
4. Declarar que los pueblos indígenas se enfrentan a la emergencia provocada por la COVID-19 en condiciones de especial vulnerabilidad que deben ser consideradas y atendidas. Es importante que se movilicen recursos, medios e instrumentos en este sentido y se adopten medidas específicas para garantizar la incorporación de los enfoques diferenciales que les son propios, tal y como establecen diferentes instrumentos internacionales de derechos humanos. El esfuerzo colectivo contra la pandemia perderá eficacia si no incorpora los enfoques de derechos y perspectiva de género que hacen que los pueblos encuentren en ellos los elementos necesarios para su reconocimiento y acción como sujetos de derechos.
 5. Declarar que, a medio y largo plazo, la cooperación vasca se enfrenta al reto de gestionar un cambio profundo en su marco legislativo, político e institucional. La contribución al ejercicio del derecho al desarrollo y a su identidad como pueblos indígenas, plasmado habitualmente en sus planes de vida, ha de formar parte de las prioridades en dicho cambio y ganar peso en las futuras nuevas directrices de cooperación, en los planes directores y en otros instrumentos posibles de la cooperación vasca que marcarán la agenda en el próximo periodo, y en la propia posible reforma de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (AVCD). Todo ello debería materializarse en líneas de cooperación a través de ONGD, bien diseñadas, dotadas con instrumentos adecuados y recursos suficientes, que permitan a las organizaciones indígenas liderar el ejercicio del derecho al territorio, a la conservación de sus bienes naturales y culturales, a la soberanía alimentaria o a una información y comunicación propia, entre otras, y siempre en el fortalecimiento del ejercicio de los derechos que como pueblos les pertenecen.





- komunikazio propiorako eskubidea, besteak beste), eta betiere herri gisa dagozkien eskubideen erabilera indartzean.
6. Eskatzea Lankidetzaren Euskal Agentziari egin dezala txosten bat adierazte aldera agentziak eta harekin elkarlanean diharduten GGKE-ek zer-nolako esperientzia izan duten garapenerako lankidetzako eta laguntzako plan edo proiektuak egikaritzen ari diren komunitate indigenen errealitateari buruz".
6. Instar a la Agencia Vasca de Cooperación a que elabore un informe sobre su experiencia, y la de las ONGD que colaboran con ella, sobre la realidad de las comunidades indígenas con las que se tienen establecidos planes o proyectos de cooperación y ayuda al desarrollo".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da batzordeburuaren oniritziarekin, Gasteizen, 2021eko martxoaren 3an.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2021.

Ontzat emana
BATZORDEBURUA
Visto bueno
LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN

BATZORDEKO IDAZKARIA
LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN

Leixuri Arrizabalaga Arruza

Miren Gallástegui Oyarzábal

